

Gipuzkoa, elkarkonektaturik

ALDAKETA garaian gaudela hainbestetan errepikatatu izan den gauza da, non guztiz agerikoa gertatzen baita, eta ez digu jadanik ezer berririk adierazten. Alabaina, horrexek berak erakusten digu orain mugitzen garen gertalekuak nolako jauzi handia egin duen, jauzi kualitatiboa hain zuzen ere. Aldaketak, agertokiak etengabeko modifikazioak, sistema eta kontzeptu berriak, egiturazkoak izatera iritsi dira, txertatu beharreko faktoreak, eta guztiz kontuan hartu beharreko eskakizunak dituztenak.

Mundu globalizatu bat ikusten dugu inguruan, azpiegiturak eta komunikazioak erabakigarriak izatera iritsi direnak. Komunikaturik edo islaturik egoteak sortzen duen alternatiba, mundu komunikatu batean existitzearen edo ez existitzearen parekoa da.

Hori dela eta, sekula baino beharrezkoago dira, hori posible bada, Gipuzkoaren "elkarkonexioa" maximizatzea jotzen duten ahaleginak. Sare telematikoko azpiegitura oso bat behar dugu, eta orobat behar ditugu antipodekiko komunikazioak denbora errealean posible egingo dituzten teknologia berriak. Baina azpiegitura "fisikoak" ere behar ditugu, gure lurraldea salgaien eta bidaiariaren garraioaren ardatz handiekin lotuko dutenak, bereziki europar ardatzekin, horietatik gero beste kontinenteetarako jauzia egiteko.

Teknologia berriei dagokienez, hainbat ekimen ditugu abian Bazkudean (datu baseak, on line prestakuntzarako plataformak, agiri digitalak, enpresa eta zerbitzuen on line katalogoak, besteak beste), gipuzkoar enpresek teknologia berrietan duten sarrera errazteko, prestakuntzaren bitartez eta zerbitzu bereziak sortuz.

Garraio eta industriako azpiegitura fisikoei dagokienez, ahaleginean ari gara bultzatzen Bazkudean Gipuzkoako europar ardatzetan duen presentzia areagotuko duten proiektu nagusiak. Testuinguru honetan, gure babesa eskaintzen diegu Gipuzkoarentzat funtsezkoak diren ekimenei, hala Pasaiaiko Portuaren kanpoaldearen zabalkundea, Lanbarrengo parke logistikoa, Ficoba Feria eremua, Pasaia eta Zaisa IIIko azokak, Abiadura Handiko Trena eta Arrain Hiria.

Orobat azpimarratu nahi dugu behar-beharrezkoak direla ekoizpen ekonomia bultzatzen duten azpiegitura fisikoak, eta, hori dela-eta, erakunde guztien artean koordinaturiko industria lurren politikak egituratzearen alde ari gara egiten, udal politikak bereziki, era horretan Gipuzkoa ekonomikoki aberats bat osa dadin.

Gipuzkoako Bazkudeak, beti ere, aberastasun gehiago eta enplegu zabalagoak lortu behar horretan, laguntzaile izan nahi du. Helburu horiek handinahiak dira zinez, eta erabakiak hartzen diren guneen arteko -hots, Gasteiz, Madril eta Bruselaren arteko- halako adostasun soziopolitiko jakin baten premia dute.

Una Gipuzkoa interconectada

DECIR que nos encontramos en un momento de cambios es algo tan reiterado que ha pasado a ser una obviedad que no aporta en sí grandes novedades. Sin embargo, eso mismo es lo que nos muestra el salto cualitativo que ha dado el escenario en el que nos movemos. Los cambios, las constantes modificaciones de los escenarios, los nuevos sistemas y conceptos, han pasado a ser algo estructural, factores que hemos de integrarlos y adaptarnos a sus exigencias.

Vemos un mundo globalizado, en el que las infraestructuras y las intercomunicaciones han pasado a ser determinantes. La disyuntiva entre estar comunicado o aislado, es comparable a la diferencia entre existir o no en un mundo intercomunicado.

Por ello son más necesarios que nunca, si cabe, los esfuerzos tendentes a maximizar la "interconexión" de Gipuzkoa con esta nueva aldea global. Necesitamos toda una infraestructura de redes telemáticas y nuevas tecnologías de la información que permitan comunicaciones en tiempo real con las antípodas. Pero también necesitamos infraestructuras "físicas" que conecten nuestro Territorio con los grandes ejes de transporte de mercancías y pasajeros, especialmente con los ejes europeos desde los que luego dar el salto a otros continentes.

En materia de nuevas tecnologías, desde la Cámara tratamos a través de varias iniciativas (bases de datos, plataformas de formación on line, certificados digitales, catálogos on line de empresas y servicios, entre otros) favorecer el acceso de las empresas guipuzcoanas a las nuevas tecnologías a través de la formación y la generación de servicios.

Por lo que se refiere a infraestructuras físicas de transporte e industriales, desde la Cámara estamos desarrollando un decidido impulso de los principales proyectos que potenciarán la presencia de Gipuzkoa en los ejes europeos. En este contexto manifestamos nuestro respaldo a iniciativas fundamentales para Gipuzkoa como la ampliación exterior del Puerto de Pasajes, el parque logístico Lanbarren, el recinto Ferial de Ficoba, las nuevas lonjas en Pasaia, Zaisa III, el Tren de Alta Velocidad y Arrain Hiria.

También sostenemos que son necesarias las infraestructuras físicas que promuevan la economía productiva, por lo que abogamos por la estructuración de políticas de suelo industrial coordinadas entre el conjunto de instituciones, especialmente las municipales, que permitan vertebrar una Gipuzkoa económica y del empleo.

En todo momento, la Cámara de Gipuzkoa quiere ser un socio-coadyuvante para lograr una mayor actividad generadora de riqueza y empleo. Estos objetivos son realmente ambiciosos y requieren de un consenso socio-político suficiente para establecer una relación fructífera con centros objetivos de decisión, además de Gasteiz especialmente Madrid y Bruselas.